

Herri kurduaren min eta bizipozarekin sei egunez Europan barrena

Kurdistango Askapen Mugimenduak ibilaldia egin zuen otsailaren 8tik 17ra bitartean Europako bihotzean, salatzen Abdullah Öcullan preso isolatuaren egoera eta Turkiak abiatu duen erasoaldia Afrinen –Siriako kantoï kurdu autonomoan–. Zenbait euskaldunok parte hartu genuen ekimenean elkartasuna adierazteko eta herri kurduaren izaera hobeto ezagutzeko aukera izan genuen.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Aitor Aspuru Saez

Euskal Herriko lau internazionalista hasieratik egon baziren ere, gu hilaren 12an heldu ginen Herri Kurduaren Askatasunaren Aldeko Ibilaldira. Gauez Frankfurten (Alemania) lurra hartu, eta berehala bi kurduk jaso gintuzten. Batek, gizon bibotedun eta erretzaile amorratuak, azaldu zigun hamasei urtez egon zela gerrillan. Gidatzen zuen modu eroagatik, sinesgarria zen erabat.

Gaueko ordu txikitik Suitzako muga eta kontrolak gainditu ostean, herritxo batean egin genuen geldialdia. Beste bi burkide kurduen etxean sartu eta Ekialde Hurbileko derrigorrezko abegikortasuna zer den probatu genuen lehenengoz. Nahiz eta bi ordu besterik ez izan atsedena hartzeko, kurduak tematu ziren eta gaueko hiruetan gosaldia genuen. 40 minutuz lo egin ostean, gure gidariek Alemaniako bidea hartu zuten. Bi orduren buruan, helmugan geunden.

Herri kurduaren alaitasuna

Azkenean, ibilaldira batu ginen. Harritu gintuen lehenengo gauza izan zen, gerran egon arren –Afrinen sekulako sarraskiak egiten ari dira Turkiako Armada eta talde jihadistak–, kurduak dantzari eta abesten ikustea. Are gehiago, 30 segundoko etenaldia gertatzen zen bakoitzean, handik eta hemendik ikusten genituen kurduak eskutik lotuta, abesten, leloak oihukatzen edota casteller modukoak eraikitzen. Ospakizunak otsailaren 15ean baino ez ziren geratu, Abdullah Öcullan buruzagiaren atxiloketaren urteurrenean. Egun horretan ez dute dantzarik egiten eta askok barauari ekiten diote.

Efemeridea albo batera utzita, badirudi hainbat urtez zapalkuntza, bortizkeria eta gerra jasan ostean Turkian, Sirian, Iraken eta Iranen, kurduak alai egiten diotela aurre tragediari. Talde zalapartatsuen osatzen bazuten ere, kurduak



ez zeuden bakarrik. PYDKo –Siriako alderdi kurdu hegemonikoa– diasporako gazteekin 100 internazionalista baino gehiago geunden, baita MLKP Turkiako alderdi komunistako erresistenteak ere. Guztira, 500 lagun inguru ginen eta filosofia kurduari jarraiki, pankartaren atzean emakumezkoak jartzen ziren, gizonetzko amaieran kokatzeko.

Ibilaldia Suitzan

Bi ilarek osatutako zutabea aurrera egiten genuen; gure zarataren, paisaia lasaiaren eta Porsche eta auto garestien arteko kontrastea bistakoa zen. Kurduen autodefentsarako YPG eta emakumeen autodefentsarako YPJ taldeen ikur berdeak apurtzen zuten tokiko armonia. Entzuten ziren leloak hainbat hizkuntzatan zabaltzen ziren; kurdueraz, frantsesez, gazteleraz, norvegiarrez... Oihu guztiek Abdullah Öcullan PKK-ko sortzailearen askatasuna eskatu eta Afringo erresis-



tentzia goraiatzten zuten turkiarren eta islamisten inbasioaren kontra.

Konfederalismo demokratikoa

Internazionaliston artean arrunta zen entzutea gaztelera, gehiengoa Espainiako Estatukoa baitzen; kataluniarrak, madrildarrak, aragoiarrak, kanariarrak, euskaldunak... Baina gauero, ibilaldia bukatu eta babeslekura helduta, Babelgo dorrea pizten zen.

Kurduak konfederalismo demokratikoa irizpideak barneratzea nahi zuten eta horretarako komunitate nahasturik banatu gintuzten. Ekialde Hurbilean bezala, denok elkarlanean aritu behar genuen, baina asiriarren, arabiarren, zirkasiarren edo iazidien ordeztan, Europako kultura eta jatorri askotako ekintzaileok eztabaidatzen genuen: italiarrek, suediarrek, alemaniarrek... Helburua zen komunak koordinatzea, egunoroko lan politikoak eta arruntak

antolatzea eta kritika eta autokritika bideratzea. Hau da, kurduak praktikara eramaten ari diren maoismo eta sozialismo libertarioaren uztarketa bitxi hori bizitzea.

Gure etxea lehenengo egunetan Gerrara Hotzeko bunkerra izan zen. Berez, Frantzia eta Alemania zeharkatzea zen hasierako asmoa, baina iazko martxan turkiarrekin izandako liskarrak aintzat hartuta eta egoera politikoa pil-pilean zegoenez, antolatzaileek herri neutralera jo zuten segurtasuna bermatzeko. Edonola ere, kurduen talde batek babes lanak egiten zituen, faxista turkiarren balizko erasoez babesteko.

Protestak

Lehenengo egunak Alpeen magalean eman ostean, otsailaren 15ean eta 16an Genevara hurbildu ginen. Han Saleh Muslim PYDKo lehendakariarekin topo egin genuen. Nazio Batuen egoitzara

zihuan Afrini buruzko txostena aurkezttera, turkiarrek eta jihadistek 200 zibil baino gehiago hil baitituzte bonbardaketetan. Prentsa agerraldia egin zuen gure artean, hainbat boluntariok giza-hesia osatzen zuten bitartean; Turkiak milioi bat euro eskaini du Muslim harrapatzeagatik. 18an Pragan atxilotu zuten turkiarren aginduz eta 27an Txekiako epaitegiak libre utzi zuen berriz ere.

Guk ere Genevako Nazio Batuen aurrean protesta egin genuen; salatzeo Afringo sarraskien kasuan erakundearen utzikeria eta Alemania, armak Turkiari salduz, gerraren kontura sekulako negoziua egiten ari dela.

Gero hiriko zinema batera jo genuen eta zuzeneko telebista saio batean parte hartu genuen. Dilek Öcullan mintzatu zen, HDP alderdi kurduko legebiltzarburua Turkiaren eta Abdullah Öcullanen iloba. Nabarmendu zuen Turkiaren asmoa dela Afrinen mugimendu kurduaren au-

AFRIN: KURDUAK INPERIALISMOAREN KOLPE-ZAKUA

Urtarrilaren 20an Turkiako armadak eta hainbat talde yihadistek Afrin Siriako kantoian kurdu autonomia inbaditzeari ekin zioten Errusiaren baimenarekin. Geroztik 200 zibil baino gehiago hil dituzte bonbardaketetan eta ehunka borrokalari zendu dira bi aldeetan.

Bataila hasi zen Estatu Islamikoaren eta Siriako gobernuaren aurkako oposizioaren porrota bistakoa zenean. Orduan, zergatik piztu da berriro gudaren sugarra eta, gainera, kurduen aurka?

Siriako Gerra munduko potentzien eta Ekialdeko herrialdeen xake partida odoltsu bilakatu da, eta egoera horretan estaturik gabeko herriak dira oro har galtzaile, kurduak esaterako. Zentzu horretan, kurduak bere biziraupen politikoa bermatzeko hirugarren bidea abiatu zuten Sirian; Konfederalismo Demokratikoaren alde egin zuten, lerrokatu gabe Assadekin, ezta oposizioarekin ere. Horrez gain, bi poten-

tzia handiekin akordioak lortu zituzten 2016an; Ameriketako Estatu Batuekin Eufates ibaiaren ekialdean Estatu Islamikoa garaitzeko, eta errusiarrekin mendebaldean, Afringo kantoian isolatua inbasio turkiarra ekiditeko.

Hortaz, zergatik okertu da dena orain? Alde batetik, kurduak bere eragin eremua asko zabaltu dute Siriako ekialdean (Mambij, Raqqa, Shadadi, Deir Ez Zour) eta, dagoeneko, borrokalari gehienak arabiarrek dira Siriako Indar Demokratikoetan (kurduak lideratzen duten aliantzan). Litekeena da AEBek lurralde hori guztia baliatu nahi izatea, ahal duten neurrian, Iran eta Errusiaren eragina murrizteko. AEBek kurduak babesteak izugarri larritu du Turkia, NATOan AEBek duten bazkide nagusia Ekialde Hurbilean. Horregatik, turkiarren lehenasuna bilakatu da kurduen aurka jotzea eta ez Bashar Al Assaden gobernuaren kontra.

Errusiaren estrategia

Turkiarren helburu aldaketa inork baino hobeto kudeatu dute errusiarrek. Haste-ko, Alepoko batailan turkiarrekin adostu zuten indar yihadistak hiri garrantzitsu horretatik mugitzea Siriako iparraldera, kantoian kurduen lotura saihesteko. Kasu horretan lehenengo aldiz ireki zion Errusiak aire eremua Turkiari. Behin lotura eragotzi eta gero, errusiarrek kurduekin akordioa erdietsi zuten Afringo kantoia defendatzeko. Horrela, guztiek irekita utzi zuten aukera etorkizunean akordio horiek handitzeko. Geroztik, Errusiak harremanak sakondu ditu Turkiarekin (aire defentsarako misilak saldu dizkio eta, gainera, gas hodia erabiliko du bertan, Ukrainaren gaineko mendekotasuna leuntzeko) eta, ikusita kurduak ez ziotela Bashar Al Assadi Afringo kontrol politikoa eta militarra ematen, Turkiari erraztasun osoak eman dizkio kurduen aurka jotzeko.

rrerapauso guztiak (feminismoa, ekonomia soziala, kulturartekotasuna) zapuztea eta lortutako askatasuna yihadisten bitartez ezabatzea, Kobanen bezala. Aretoa emozioz bete zen erresistentziaren alde, eta tanke turkiar zartatuen irudiak jartzen zituzten bakoitzean, algarak eztanda egiten zuen. Giroa borborka zegoen eta, bat-batean, Siriako PYDKo gazte kurduak aretoa lagatzea erabaki zuten. Europarrok ez genuen ezer ulertzen, baina, gerora azaldu zigutenez, hizkuntzaren borroka nonahi dago. Izan ere, telebista programan parte hartzeari utzi zioten turkiarrez emititzen ari zelako, kurdu gehienak Turkiaren menpe bizi baitira. Egia esan, poztu gintuen ikusteak kurduen artean ere eztabaida sutuak ematen direla hizkuntza edo molde politikoen ondorioz.

Geneva eta Estrasburgo

Otsailaren 16an berriro itzuli ginen Nazio Batuen eraikinera euren pasibotasuna aurpegiatzeko. Kasu horretan, Saleh Muslim izan genuen berriro gure artean. Ekitaldia bukatu ahala, autobusetara igo ginen Estrasburgora joateko. Han, gure lehen geltokia Kurduen Kultura Zentroa izan zen; paretak hildako militanteen argazkiak josita zeuden. Gau horretan fa-

milia kurduekin egin genuen lo. Gure kasuan, familiako bi semeak Kurdistanen zeuden egun; horietako bat Afrinera igarotzen saiatzen ari zen egun horretan Iraketik, erizain lanak betetzeko.

Manifestazioa

Larunbatean elur eta euripean hasi zen Estrasburgon mobilizazioa. Internazionalistok jende uholdearen buruan geunden, Siriako Afrin kantoian kurduaren aurka Turkiako presidente Recep Tayyip Erdoganek agindutako eraso kriminala salatzen, baita Abdullah Öcalleanen askatasuna exijitzeko ere. Öcallean duela bi urte erabat isolatuta bizi da Imrali uharteko espetxean; senideek ere ezin dute berarekin hitz egin.

Ibilbide luzea osatu genuen eta kale guztietan Gendarmeria eta CRS poliziak pilotzen ziren, eraso yihadista baten beldur. Apurka-apurka manifestazioaren helmugara heldu ginen eta ordezkariak guztiek hartu zuten hitza. Euskaldunok irtenbide politikoa baketsua aldarrikatu genuen, baina hala gertatzen ez den bitartean, herri kurduaren erresistentzia goraipatu genuen, bereziki, emakume borrokalariena; Afrinen borrokan hil diren Sakine Kansiz, Arin Mirkan, Barin Kobani edota Avesta Xaburren gisara.

Eguraldiak hobera egiten ez zuela ikusita, lehenago bukatu zen ekitaldiaren osteko jaialdia. Bazirudien guztiontzat etxera itzultzeko unea heldu zela, baina azken ezustea zain genuen.

Raqqa borrokalariak

Bruselako bidaiari Espainiako Estatu-ko gazte bat elkartu zen ordezkari euskaldunokin. Berarekin hizketan ginela, jabetu ginen Siriako Raqqan ibilitakoa zela Estatu Islamikoaren aurka. Ez zen abenturazalea, ezta militarra ere, historialaria eta ezkerreko militantea baizik. Egun batzuk lehenago lagun mina galdu zuten Turkiaren aurka borrokan: Olivier François Jean Le Clainche, 'Kendal'. Bretoi independentista zen, euskaraz zekien eta kurduekin Sirian borroka egin ostean, Afrin defendatzeraz joan zen eta han hil zuten otsailaren hasieran. Bide-lagun izan genuen milizianoari galdetuta, berak argi zuten Siriako konponbidea kurduen eta Bashar Al Assaden arteko akordioaren eskutik etorriko zela. Hala eta guztiz ere, zalantza egiten zuten Errusiak, Iranek, Turkiak edota Ameriketako Estatu Batuek hori ahalbidetuko duten, eta erregimenak ulertu ote duen egoera ez dela itzuliko gerra aurretiko statu quora. ■